



# Aste Berdea

Uztailak > 13 - 19 > 2020

[www.getxo.eus/asteberdea](http://www.getxo.eus/asteberdea)



Getxo

bizi ezazu

Ingurumena  
Medio Ambiente

# Getxo Aste Berdea

Getxoko Udaleko Ingurumen Sailak Aste Berdea antolatuko du aurten ere, uztailaren 13tik 19ra. Astean zehar, dibulgazio-, informazio- eta partaidetza-jarduerak ugari izango dira udalerrian, ingurumenarekiko sentikortasuna bultzatzen laguntzeko eta etorkizun-sen ekologikoa aldarrikatzeko helburuarekin.

Jarduerak guztiak geure burua eta besteak babesteko beharrezkoak diren **segurtasun-neurri** handienekin gauzatuko dira.

## HIGIENE- ETA OSASUN-NEURRIAK



**MASKARA ERABILTZEA.** Maskara Aste Berdeko jarduerak guztietan nahitaez erabili beharko da, segurtasun-distantzia errespetatu ezin bada.

**HIDROGELA.** Parte-hartzaileek eskuak garbitzeko hidrogela eskuragarri izango dute jarduerak irauten duten bitartean. Hala ere, norberak bere hidrogela ekartzea gomendatzen dugu.

**OSTIRALA  
17**

18:15etik 19:15era  
19:15etik 20:15era

Ontziratzea Kirol-Portuan

**IZEN-EMATEA  
BI IRTEERA**

## ITSASONTZIAN IRTEERA. Ibilbidea Abrako badiatik.

Igo 'El Bote Tours'-era eta gozatu Getxoz itsasotik. Paisaia eta itsas-espezieak ezagutzeko aukera izango duzu **Alberto Santolariaren** eskutik. Santolaria itsas-biologiaren doktorea, dibulgatzailea, itsaspeko dokumentalen ekoizlea eta ingurumenari buruzko ekintzailetzan aditua da.

Ordubeteko bi irteera egingo dira, bakoitzean **20 pertsonentzako tokiarekin**. Jarduera honek **segurtasun-neurri guztiak** betetzen ditu eta bikaina da familian gozatzeko. Eman izena!

**LARUNBATA  
18**

11:00etatik 14:00etara  
16:30etik 19:30era

Algortako Geltokia plaza

## BIGARREN ESKUKO AZOKA

**Saldu erabiltzen ez dituzun** gauza horiek! Oso erraza da. Zatoz Algortako Geltokia plazara eta utzi zure objektuak azokaren antolatzaileen esku. Guk geuk salgai jarriko ditugu. **Formulario** erraz bat bete beharko duzu utzitako objektuen zerrendarekin. Ez ahaztu **prezinoa itsasgarrietan** jartzea!

Azoka amaitzerakoan, saldutakoaren zenbatekoa edo saldu ez den materiala jasotzera etorri beharko duzu, besterik ez. Sal daitezkeen gauzak: liburuak, jostailuak, apaingarriak, tresnak, kirol-objektuak, musika...

Ez dira onartuko arropa, osagarriak edo tamaina handiko gauzak. **Gehienez 3 objektu pertsona bakoitzeko.**

**IGANDEA  
19**

10:00etatik  
12:00etara

Aixerrotako Errota

**IZEN-EMATEA**

## NORDIC WALKING IBILKETA NORDIKOA

Kirol honetan aritzeko aukera eskaini nahi dizugu. **Bi makila berezi erabiliz ibiltzean datza**, hala gorputz osoa lantzeko. Oso praktika osasungarria da, eta onura ugari ekartzen ditu sarritan egiten bada.

**Arropa eta oinetako erosoak** eramatea komeni da. **Antolatzaileek makilak** banatuko dituzte, behar bezala **higienizatuta**. Bastoiak ezin izango dira beste pertsonekin partekatu.

Jarduera hau ibilketa nordikoan aritzeko teknika egokia eta osoa lortu nahi dutenei zuzenduta dago. **Adin guztietarako** aproposa da.

# ASTE BERDEKO JARDUERAK

## ASTELEHENA 13

### SASOIKO LANDAREEN BANAKETA

12:00etan - AREETAKO GELTOKIA PLAZA

Zatoz sasoiako landare bat jasotzera. Kolorez beteko ditugu Getxoko balkoiak eta leihoak!



IZEN-EMATEA



## ASTEARTEA 14 SUKALDARITZA OSASUNGARRIA FAMILIAN

17:30etik 19:00etara - KITCHEN ACADEMY SUKALDARITZA ESKOLA- Errotatxu Industrialdea, C12 Lokala - Getxo

Zure seme-alabekin kozinatu nahi duzu? Izena eman jarduera honetan eta sekulako arratsaldea pasa! Menu osasungarria prestatuko duzue eta, oraingo honetan, zu izango zara sukalde-laguntzailea.

## ASTEAZKENA 15

### SASOIKO LANDAREEN BANAKETA

12:00etan - ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA

Sasoiako landareak banatuko ditugu berriz ere Aste Berdeko karpalara hurbiltzen diren pertsonen artean.



## OSTEGUNA 16 BIRZIKLAPEN-TAILERRA

18:00etatik 19:30era - SAN NIKOLAS PLAZA

Eskulan originalak egingo dituzu esne-brik bat birziklatuz. Zatoz eta diru-zorro bat egiten erakutsiko dizugu. Guk geuk emango dizkizugu materialak.



## HIRI-BARATZE TAILERRA (HASTAPEN MAILA) IZEN-EMATEA

18:00etatik 19:30era - HUERTAS DE ZUBILLETAS

Hiri-baratzeen hastapenak ikasi eta elikadura eta aisialdi osasungarriak sustatu nahi dituzten pertsonen zuzendutako tailerra. Adin guztietarako aproposa da. Norberak bere eskularruak ekartzea komeni da.

## OSTIRALA 17

### TURUKUTUPA - MATERIAL BIRZIKLATUEKIN EGINDAKO KONTZERTUA

18:00etatik 19:00etara

SAN NIKOLAS PLAZA / ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA

Hainbat musika-estilo nahasiko dituen kontzertu pedagogikoa.



## ITSASONTZIAN IRTEERA

18:15etik 19:15era / 19:15etik 20:15era

ONTZIRATZEA KIROL-PORTUAN

Igo 'El Bote Tours' ontzira eta ezagutu inguruko paisaiak eta ekosistema itsas-biologian doktorea den Alberto Santolariaren eskutik. Gure kostaldeko edertasuna erakutsiko digu Santolariak. Bi irteera. Edukiera: 20 pertsona irteera bakoitzeko. Familia-jarduera.

BI IRTEERA

IZEN-EMATEA

## BIZIKLETA-IBILBIDEA GETXOKO KOSTALDETIK

IZEN-EMATEA

20:00etatik 22:00etara - BIZKAIA ZUBIA

Izena eman eta zure bizikleta ekarri. Ibilbidea erraza eta aproposa da familia osoarentzat. Gure itsasertaz modu osasuntsu eta iraunkorrean gozatuko duzue!



## LARUNBATA 18 TXANGO GIDATUA GETXOTIK

IZEN-EMATEA

"Gure udalerriko bazterrak eta historia"

10:00etatik 13:00etara - FADURAKO APARKALEKUA

Txango gidatu honen helburu nagusia, oinez ibiltzeaz eta naturaz gozatzetik gain, gure herriari buruz gehiago ikastea da. Ibilbidea: Larrañazubi, Martiartu Dorrea eta Bolueko hezegunea.

## BIGARREN ESKUKO AZOKA

11:00etatik 14:00etara / 16:30etik 19:30era

ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA

Erabiltzen ez ditugun gauza horiek bigarren eskuko azokara ekartzeko aukera izango dugu Getxoko bizilagunok. Antolatzaileek salgai jarriko dituzte objektuak horretarako prestatutako mahaietan. Parte hartu nahi baduzu, inprimaki bat bete beharko duzu utzitako objektuen zerrendarekin. Ondoren, eskuragarri izango diren itsasgarrietan finkatu beharko duzu prezioa. Azoka amaitzerakoan, saldutakoaren zenbatekoa edo saldu ez den materiala jasotzera etorri beharko duzu. Honako hauek dira sal daitezkeen gauzak: liburuak, jostailuak, apaingarriak, tresnak, kirol-objektuak, musika... Ez dira onartuko arropa, osagarriak edo tamaina handiko objektuak. **Gehienez 3 objektu pertsona bakoitzeko.**

BIGARREN ESKUKO OBJEKTO BAT EROSTEAGATIK, POLTSA HAU OPARITUKO DIZUGU.



## XUSO, BIRZIKLAPENAREN MAGOA

19:00etatik 20:00etara - AREETAKO GELTOKIA PLAZA

"Xusoren abenturak eta hiru R-ak".

Adin guztietarako magia- eta ilusionismo-ikuskitzuna. Itxuraz alferrikakoak diren objektuak balio handiko tresna bihurtuko dira.

## IGANDEA 19 IBILBIDE GEOLOGIKOA GETXOKO FLYSCHETIK

IZEN-EMATEA

10:30etik 13:00etara - GALEAKO APARKALEKUA

Geologo batek gidatutako ibilbide lineala Abrako badian zehar. Galeako gotorlekutik Azkorri-Gorrondatxeko hondartzaraino abiatuko gara, eta hainbat geldialdi estrategiko egingo ditugu. Pertsona guztiei zuzenduta.



ABIAPUNTUA: GALEAKO GOTORLEKUA  
HELMUGA: AZKORRI-GORRONDATXEO HONDARTZA



## NORDIC WALKING IBILKETA NORDIKOA

IZEN-EMATEA

10:00etatik 12:00etara - AIXERROTAKO ERROTA

Jantzi arropa eroso eta gozatu azken bolada honetan hain ezagun bilakatu den ibilaldi honetaz. Bastoiak 9:45ean banatuko dira. IRAUPENA: 2 ordu (50 minutuko hastapen-tailerra, ordubeteko ibilaldia eta 10 minutuko luzatze-ariketak).

**IZEN-EMATEAK:** Telefonoz: **605 74 90 64** edo e-postaz: [getxoasteberdea@gmail.com](mailto:getxoasteberdea@gmail.com), hautatutako jarduera, izen-abizenak eta telefono mugikorra adieraziz. Jarduera guztiak doakoak dira.

Euria egiten badu, jarduerak lekualdatuko dira. Kokapen berriaren berri [www.getxo.eus/asteberdea](http://www.getxo.eus/asteberdea) webgunean emango da.

## LEHIAKETAK

Lehiaketak uztailaren 19an bukatuko dira, 00:00etan. Irabazleei telefonoz emango zaie emaitzen berri.

### 1 NATURA ETA INGURUMENARI BURUZKO ARGAZKI-LEHIAKETA

Biodibertsitatea islatzen duten irudiak bilatzen ari gara, ingurumenarekiko errespetua ardatz izanik. Lehiaketa honek bi kategoria ditu:

1- **Naturari buruzko argazkiak:** 100 €-ko lehen saria eta 50 €-ko bigarren saria.

2- **Ingurumen-salaketa:** 100 €-ko lehen saria eta 50 €-ko bigarren saria.

### 2 KOZINATZEN, BIRZIKLATZEN eta NATURA ZAINTZEN

Prestatu zure errezeta eta kontu iezaguzu prozesuaren xehetasunak eta nola kudeatu dituzun sortutako hondakinak. Prestaketari, birziklapenari eta emaitzari buruzko bideoa edo argazkiak bidal diezazkigukezu. Irabazleak bi lagunentzako bazkaria edo afaria (150 € baliokoa) jasoko du sari gisa Getxoko establezimendu gastronomiko batean.

Bidali zure argazkiak edo errezetak [getxoasteberdea@gmail.com](mailto:getxoasteberdea@gmail.com) helbide elektronikora, aukeratutako lehiaketa (argazkiak edo sukaldaritza), izen-abizenak eta telefono mugikorra adieraziz.